


Antxiñako fotografixia



Otaduiko idiskua

Argazki honetan ikusi geikien zezen gazte eder horrek Oñati eta inguruetakoa makiñatxo bat behi ernalduko zittuan. Noizko kontuak diran horreik? Inseminaziño artifiziala zabaldu aurrekuak, jakiña. Lehenago idiskuak eukitten zittuain baserri batian edo bestian, behiak estalketako. Oñatik hirurehun baserriatik gora eukanez, hazitarako hainbat zezenkote egoten ziran han-hemenka auzo batzuetan sakabanatuta. Goribar baserrikua, esate baterako, oso ezaguna zan. **Puestoko idiskuak** esaten xaten ganadu honeiri. Baiña fotografixa honetakua Goribar baiño goragokua zan: Uribarri auzoko **Otadui Haundi** baserrikua. Otaduin aspalditxotik ezaguketan zittuain, nunbait, halako animaliak. Diru apur bat emuten ba eben be, etzan lan samurra eta erosua. Bi edo hiru urtetik behin aldatu egin bihar izaten euen idiskua, eta horretarako urrin samar fan bihar izaten zan ordezkuaeren billa. Argazkixan agiri dan Otaduiko aitta, **Bixente Igartua Agirrebaltzategi**, sarrittan ibilli zan Azpeitti eta inguruetan idisko gaztiak erosten. Eta hori etzan egun bateko lana izaten, tra-tuaren gorabeheratik aparte, fan-etorrixak oiñez egitten ziralako.

Idiskuak baserriko ittoian egoten ziran kate motxian. Etziran zezen-zezenak besteko arrisksuak, baiña, badaezpada be, kontuz ibili biharra eguen. Ez zittuain ittuatik kanpora ataraten, perratokira edo holako zeregiñen batera ezpazan; **behixak eruaten osten** bertara batetik eta bestetik, ernalduak izateko. Halakuetan libre antzian geraketan ziran, baiña ittoi barruan: aro baten bittartez kable luze bate-ri lotuta eguen idiskuak hara eta hona mobiduteko aukeria eukan, behixekin hartuemun sexualak zittuan bittartian. Uribarri eta Lezesarri lotuta eguen idiskuak hara eta hona mobiduteko aukeria eukan, behixekin hartuemun sexualak zittuan bittartian. Uribarri eta Lezesarri auzuetako behixak eruaten zittuain, batez be, Otadui. Hala eta be, beste leku batzuetakuak be faten ziran, batzuk ez hain hurrekuak: Arantzazu, Araotz, Urruxolakuak eta beheragoko batzuk be bai. Behixen estalketok batzuetan noizian behin egin arren, iñoiz egunian hiru aldiz be gauzaketan zittuain. Uribarrin **ermandade** bat eguen, premiña izan ezker, puestoko idiskua mantenittekoko gastuai eran-zuteko. Ermandadekuak etziran baserriarrak bi pezeta pagau bihar izaten euen estalketa bakoitzeko fotografixa hau atara zan garaixan.

Eta noizkua da ba argazkixa? Uribarriko Otadui Haundittik 1943an Garagaltza auzoko **Gatzelondora** ezkondu zan **Emili Igartua Irizar** gure informatzaille nagusixaren ustez, gerra aurrekua da, 1934-1935 urte ingurukua. Argi eta garbi ikusten da Patruie kalia hartutakua dala. Kontuan izan bihar da herriko **perratokirik** famauena orduan eta askoz geruago be kale horretantxe eguela: **Paulo Biain** eta haren seme **Baxilio**rena. Dirudienez, San Migeletako ganadu-ferixara ekarri eben Bixentek idiskua eta bide batez anak perraitteko aprobetxau eben biajia. Begiratu ganadua dominaitteko muturrari erantsitta dakon makilla luze horri. Kaleko zorua eta espaloiak harrizkuak dira eta atzian agiri diran etxiak eztira kasu gehixenetan, urtetxuak pasau arren, larregi aldatu kanpoko aldetik: ezkerrian **Kirruneko** etxian behekaldean Luxiana eta Martzelak joskiñen taillerra eukain, eta gerraostian lokal horretan **Xabaloneko** tabernia egon zan; ondoren **Zesareo Uribarri**ren orduko lantegixa eguen; barrenian **Baruekua** etxia Santa Marinan; eskuman, berriz, **Zirrinkaiñena**, Baltzategittarrak eukain emakumien pelukixarako sarreriarekin.

J. E.

Fotografixa Enrike Olalde eskuratu dosku. Informaziñorik gehixena Emili Igartuari zor xaugu. Enrikek berak, Enkarna Cuestak, Maritxu Gorrotzategik eta Arantxa Gorrotzategik beste datu batzuk osotu doskue. Milla esker danoiri!